¡¡ Gabon !!

Gure etxaldea

1934

# Gabon !!

## Gure etxaldea

¡Gabon! ¡Gabon! Egualdi laŕia, baiña arpegi, alaiak dakusguz. Odei-narraŕetan euria baiño gure umeen ezpanetan iriparea samuŕago gaur, ene irakurle.

Goiz-goizetik eten-bako Txilionalea dogu gaur gure auzoan. Edu ori garasi entzun orduko, egualdi onik etxatorkula iñoz esan izan yausteuk guri aitak.

Ixilik, be, ba-yabiltzuz, oraiño, norbaitzuk. Begiratu egizu gure etxaspira. Neska muxil txaliña dozu izan Matxalen, Ibarguen'go etxeña. Pagoto-ebaten zoli diñardu euren soloan. Beste-aldean, gure morroia, be, an dozu arbi-oŕi-giñan. Kilikiliberea baiña, modu onako mutila dozu gure Txanton. Neskatilen uŕean ez dau izan egundo minpekorik. Gaur baiño alkaŕen uŕiñago egonaren, jardunaldi edaŕik asko egin izan debe oŕeik biok iñoz. Egun bitarrako abere-jatekuak egin bear dauz gaur baiña Txanton'ek, be. Eta aŕatsaldean sasoiz urten gura izango dau bere gurasuetxana. Burua jasoteko asti barik diñardu atxamartxa oŕi-giñan.

¡Gabon! Egundo onako kanta ta txistu-soiñorik! Miragaŕia aritz-adaŕean baiño, eŕo ta kan-

tariago dogu gaur gure "umea", be. Amabi urte biar egiten dauzanaren, etxeko txikienari "umea" esaten dautsogu. Bei-zain, dautsogu. "¡Ó!", diadar batzuk egiten ditu noizipein. Mutil argi ta bizia dozu; zital-txamara. Etxako euli asko urreratuko. Bost bei darabilz aurrean. Gure bei-zainari Josu dogu. –

Aizkora-otsak doguz larrañean. Aizkolariari Mari da. Ule-oriska, mailuki-kolore, neskatila azkarra. Ardi-janik ez dozu ikusiko oren sama-inguruan. Alneak batera ta bestera darabilan ule-tximarik, be, ez, oren buruan. Ebagi-alan pilo bitara egiten dauz egurrak; alde batera lodiak eta meak bestera.

Lari ta arrapataka dabil ori beste nor-edo-nor; be. Laba-agea artuta, arin sartu da barrura. ¡Ule-txi-mak urrance ta burukoa nerias...! asarre-txamar dabil. Labekosua ta lenibea etxeko andrentzat zeregin txarrak dozuz, ene irakurle. Asmuetako gogo gitxi eukiten dau gure amak beintzat olako egunetan.

Zarataka bedarragaz etxera yatzun beste au alaiago dogu. Larrañean egur-zeetzen ziñardunari iraizean ankeagaz egur-piloak nastau ondoren, ba-dua gure Patxi ostera, be. nonoruntz. Berorek ete-daki nora? Ugitaiagaz ta zaraagaz tanbor-otz ederra ateraten dau. Amasazpi urte ba-dauz, sei urteko umeak baiño biurriago dozu baiña.

Etxaldiori ikusi dogu, ene irakurle. Batera ta bestera, gabilzala idorro, doguzanei egin dautsegu begiratutxu bat. Aiterik begiz jo dozu euk, ene lagun? Ez, ausago. Dabilan lekuan ez da lo egongo. Berezi-aldean izango dogu orain be. Ez dau, entzuten baiña berriketarako gogorik eta astirik eta bakean itxi dagiogun. Apalondoan izango dogu nai-aiña astu

---

Zatoz, ene irakurle, zatoz beko-ate-ondora. Aulki onetantxe jarri gadizan. "Gabon" ez ba'gendu, arratsalde-gorian omen jarrita egoten lotsatu egin bear. Atsoak be, gaurko arratsaldea jai esten dabe...... ta guk ez dauKagu lotsarik izan-enik. Ipar-aizetan, gaur baiño giro obarik, egin izan dau aurtengo uda-buruan.

Lomiño-bereda oso-osoa ikusten da emendik. Aurez-aurre dogu bide-barria. Arizti gordinak eskumam eta sagasti zabalak ezkerretik. Negu bitek gogorrak biluzik ipiñi dauskuz zugatz oro ta narru-gorri doguz solo sakonak be.

Negu zakarrak ##uldu dauz zugatzak, akerri aizeak ez dauz kiskaldu baiña gure ekanduak. Oneitxek poz ten nau, ene irakurle.

Begiratu egizu bide-barrira, ene lagun. Gurasuek Kana duaz Gabon-jaietarako gure neskame ta morroiak.

Kalkarpean edo lepuan makilatik esegita pardeltxu ba-tzuk daruez. Porik duaz.

Beetik-gora, datozan atsuok, be, zimerakada galantak dakarez. Zimerakadok barikotez betetakoak ba'lira, etxerra ordako, atso bakotxak beste bena beteko leukie. ¡Etenbako, da oraitiño orien jarioa!

Etxezulo gaituzu, oraitiño, euskeldunok. Ezin aztu dogu gure gurasoen etxetxoa. Kalkondute-edo gurasoetxandik-urun gure bizimodua dautzogunarren, urte-buruan iru edo lau osterratxu gure etxera egiteko ezin bizi gara. Bide-barian gora datozkuzan bikote orreik Gabon-jaietarako gurasoetxana duazanak dozuz. Senditxo danak alkartzen dira Gabon-gabez.

Ibarzuen'go zubiondoan dan mutil gaztea nor ete dogu? Frantoa. Sasoiz irigurutu da. Kirilik juan jaku. Zapi urdin baten batuta darua gure amak ipini dautson makilauna. Norbaiten-zain dago. Matxalen'ek ikusi dau onezkero. Goizean alkar aituta izango dogoz kontuzu.

Bagilean keriza gori eldu etara goizean-goiz zoro-miragarioak. Gixarri goiztariak aurrea artu baiña. Matxalen, be, sasoiz bere ustez, Franton'ek aurrea artu, oraitiño.

Parez-pare duaz biak. ¡Matxalenen jai-

kia ta Txanton'en beso-eragiña bai ikusgariak! Lur-ari ikutzeko baiño ariñago dua Matxalen. "Aremaite-tsuetako" ezurigo, dira etxeratu egin-alak egiñda be, baiña.

---

Upan baiño illunago dago. Etxetik-kanpo txakur-zaunka banaka batzuk dantzuguz. Etxe-barruan? Abesti, ipuin.....barre-algada.....danak alai doguz. Ama-alabak sutondoan. Aita seme biren erdian. Apaldu-orduko "errosarioa" errezau bear dabe. Gaurkoz baiño asti gitxiago izan-arren, egundo ez dabe otoitketa ori egiteko itxi. Kistar zintzo dirau gure baseriak. Maitasun-lurrina besterik ez dogu gure eskaratzean. Aldi baten Belengo estalpean artzaiñak baizen alai doguz gure neba-arrebak.

Gertau dabe maia. ~~Otoia egin ostean~~ Ogi bariari kendu dautsoe kuskurra. Txakur-katuei ~~?~~ datorren Gabon-gabaz emoteko gordeten dabe.

—¡Tira! Aparia "prest" dago -diño Mari'k. Bakotxak bere aurkia artu ta danak maira dira. Otoitzoa esan dabe. Nasai jarri, diranaren...mairik ezin ornidu. Ete mai-utsune orretl guztieri gaumetapen [illegible] bat-edo bururatu dautsoe.

—"Joxe Mari" gurea ez al-dator, aita? — egin dau txikienak, Josu'k — juan da, ba, gure moroia ta Joxe Mari zergaitik ez dator? — darai.

— Kisto'ren moroi dok gure Joxe Mari ta Kisto'ren moroiak etxuek izaten jai ta oporaldirik, seme — dirautso aitak.

---

Ona emen, ene irakurle, Gabon egunez burura etorri yatazan gomutagarrenak. Etxetik urian soiñez egonarren, gogoz ene txoko maitean izan nintzan.

Gazteiz'en 1934'gn. Gabon-egunez